

«Aukera iristen denean arriskatzea da nire filosofia»

Eskuz banakako txapela goiz lortu zuen Barriolak, 23 urterekin, baina gorako ibilbide itxaropentsuan eskuiko lesio batek kantxetatik baztertu zuen denbora luzez. Orain, une latzak igaro ostean, fenix hegazia bere errautsetatik birsortu da: Eskuz banakakoa behetik hasi eta Galarza, Xala, Peñagarikano, Irujo eta Eugi bide bazterrean utzi ditu, finaleraino iritsi arte. Azken urratsa baino ez du falta, txapeladunorde geratzeak meritua baitu, baina “txapelak beste zapore bat dauka”.

MIKEL GARCIA

Argazkiak: Dani Blanco

Eskuz banakako finalean faborittoa zara kinieletan. Horrek presioa sortzen dizu ala konfiantza ematen?

Egia esan, Aimar iritsiz gero [elkarrizketa egin dugunean beste finalerdia jokatu gabe dago], dirua bere alde aterako dela diote. Faborito denak beti du pisu pixka bat gehiago, baina adinean ere gora goaz eta gauza horiek ez didate burua betetzen. Eskuak askoz hobekiago ditut eta emaitzak iristen ari dira, hori ona da.

Zer esan nahiko luke bigarrenez txapela irabazteak?

Niretzako asko. Lehenengo txapela irabazi nuen gazteagoa nintzen, sasoi betean nengoen eta adin horrekin irabazten duzu baina benetan konturatu gabe zergatik. Hau beste txapel mota bat da: kontziente naiz zenbat kostatzen den, zergatik gertatzen diren gauza asko... Gainera, pasa ditudan momentu txarrekin berriz ere txapela irabaztea gauza handia izango litzateke.

Aimar finalerako sailkatuz gero, gertuko bi arituko zarete. Nafarra izan beharra dago pilotari ona izateko?

Kar, kar, kar. Ez, baina egia da azkenaldian behintzat Nafarroatik pilotari asko irteten ari dela. Nafarroa iparraldeko herri txiki hauek pilotaren sustraiei eutsi egiten zaie eta futbolak indar handia du, baina agian ez beste tokietan bezainbeste. Oraindik ere pilotaren gotorleku dira leku hauek.

Bengoetxea bera ere Leitzakoa da eta 3.000 biztanle baino ez zarete.

Bai, hemen afizio handia dago. Oinatz oso ongi dabil eta pilotari mordo gaude: Frontisen jokatzeko ari den beste bat, profesionalerara iristeko aukera handiak dituzten pilotari ugari...

Frontoian

“Tentsioa eta urduritasuna dira nagusi. Bost zentzuak piztuta egoten dira, benetan bizirik sentitzen zara kantxa barruan. Gainera, partidu guztiak ez dira berdinak eta txapelketa denean nabari da giroan zerbait berezia dagoela”.

Nola gogoratzen dituzu Leitzako pilota eskolan emandako urteak? Eskola-pilota asko aldatu da ordutik?

Ez dut uste asko aldatu denik. Pilota eskolak oso garrantzitsuak dira kirol honentzako, baina azkenean pilota eguneroko gauza da, ez astean bi egunekoa. Kirola bizitzeko modu bat da; bizimodu hori eraman nahi duen pertsonak aukerak ditu profesionalek iristeko eta hor goian aritzeko.

Umeak geroz eta lehenago hasten omen dira larruzko pilotarekin.

Ez dut uste, gu ere txikitzen nahiko goiz hasten ginen pilota gogorarekin, 10-11 urterekin.

Eta hori ona al da?


Ez dakit. Ondo legoke azterketa bat egitea onerako ala txarrerako den jakiteko. Nik lehenengo pilotari batzuei entzun izan diet pilotariak txikitatik ohitu behar direla tako gutxiarekin jokatzeko, eskua gogortzeko. Beste batzuek diote, aldiz, hezurra egin arte ez dela behartu behar eskua. Ez dakit onena zer den.

Peñagarikanok eta Aratz Mendizabalek Babesku izeneko eskularrua (silikonazko takoak) atera dute haurrentzako.

Banekien horrelako zerbaitetan ari zirela. Ongi iruditzen zaizkit horrelako asmakizunak. Pilotak, euskal kirola izanik, modernitatera ongi egokitzen jakin du, baina oraindik atzean geratu diren gauzak dauzka: takoak su txikian berotzen ditugu, esparatrapua eta takoak jartzeko oraindik ordu eta erdi eta bi ordu artean behar ditugu... eta asmo oneko aurrerapen horiek esker-tzekoak dira.

Orduan, beste kirol profesionalekin alderatuta, pilota atzeratua geratu dela uste al duzu?

Abel Barriola



Ez. Eskuetako babesa agian bai, eskuak gutxiago sufritzeko zerbait ez asmatu izana faltan botatzen dut. Bestela, pilota kirol modernoa iruditzen zait, fisikoki oso zorrotza eta bete-beteko.

Baina pilota gogorrek erabiltzeak lesioetan eragin al dezake?

Baietz iruditzen zait. Eulateri, esaterako, eskuetatik inoiz sufritu ez duen pilotaria izanda, orain kolpe-kolpean behatza zirkulaziorik gabe geratu zaio eta ebakuntza egin behar izan du. Horrelako kasuak geroz eta gehiago ikusten dira, gaur egun garai batean baino partidu gutxiago jokatu arren txapelketako gehiago jokatzen direlako, gogorragoak. Atzo Bergaran izan nuen partiduak, adibidez, ordu eta erdi iraun zuen, eskuentzako jipoia da eta azkenean horrek ordaina ekartzen dio bai profesionalari eta baita umeari ere.

Ander Letamendia medikuak esan zigun hobeto zaintzen dela pilotaren larria pilotariaren eskuko azala baino. Astakeria handiak egiten dituzue?

Pertsonaren arabera, baina agian ez dugu eskua behar adina zaintzen. Askotan gorputza asko zaintzen dugu eta eskuak ez.

Partidu batean eskuko mina baldin baduzu, adibidez, non jartzen duzu muga? Sufritzen jarraitzen al duzu bukaeraraino?

Partiduan, mina baldin baduzu zaila da %100ean jokatzeko, baina irabazi nahi horrekin aritzen zara, bero-bero, are gehiago txapelketako partidua bada, eta segitu beharra dago. Apustuak ere tartean egoten dira eta ezin duzu hutsik egin, maila eman behar duzu.

Eta enpresek presionatu egiten al dute partidurekin jarraitzeko?

Ez, enpresak ahalik eta etekin handiena atera nahi dio bere pilotariari, baina presioa norberak jartzen dio bere buruari. Hala ere, eskuko minarengatik ez dira partiduak suspenditzen. Gorputzeko beste lekuren batean lesioa izanez gero bai, baina eskuko minagatik ez, gaizki ikusia dago eta ezin da egin. Hori da, adibidez, pilotaren atzerapenetako bat: eskuko minarengatik behin baino ez da bertan behera utzi partidu bat jokatzen ari dela.

Zuk nola bizi izan dituzu lesioekin izandako gorabeherak?

Lesioa beti da txarra, *putada* bat da, baina

Nortasun agiria

Abel Barriola Ezkurra Leitzan (Nafarroa) jaio zen, 1978an. Asperekin 1998an debutatu zuen profesionalean eta 2001ean Lau t'erdiko txapelketa irabazi zuen. Urtebete beranduago berriz, Eskuz banakako txapela lortu zuen, finalean Beloki garaitu ostean. Eskuko lesioek frontoietatik aldendu zuten eta 2005ean eskuin eskuko fibrosia operatu ziotenetik denbora luzea eman du errehabilitazioan. Pasa den urteko Lau t'erdikoan txapeladunorde geratu zen eta aurten Eskuz banakako finalerako sailkatu da.

momentu txarretatik ere ikasten saiatzen zara eta denek dute hasiera eta bukaera. Kirolak hori du: nahiz eta momentu batean ongi ibili, lesio batek zure ibilbidea moztu dezake eta gero berriz hutsetik hasi behar duzu. Ez da erraza, baina kirolaren parte da eta horretarako ere prest egon behar da.

Egia al da pilota uztekoan egon zinela?

Uztekoan esatea agian gehiegi esatea da, baina egia da gauzak oso zehatz eta poliki planteatu behar izan nituela. Momentu oso txarrak pasa nituen eta eskuari ez nion irteerarik ikusten. Hilabete bat, bi, hiru izan balira... Baina urtebete egon nintzen lesionaturik eta aurretik beste hainbeste. Denbora asko da eta esku honek ematen zizkidan arazoak hein batean obsesio bihurtu ziren.

Zer pasatzen zaizu burutik zure lanbiderako trenarrik garrantzitsuenak operatu behar duzunean?

Momentu horretan, nahiz eta agian arraroa irudit, nolabaiteko lasaitasuna sentitu nuen. Denbora askoan eskuetatik gaizki egon nintzen eta irtenbidea eman behar nion; aurretik dena probatu nuen: masajistak, *brujak*, belarrak... Operatzeko erabakia hartzea ere ez da erraza, baina medikuak bi-hiru hilabetezko errehabilitazioa aurreikusi zidan eta eskuetako arazoak gutxitzeko eta gehiago disfrutatzeko bidea izango zela pentsatu nuen. Zoritarrez, uste baino denbora gehiago eman nuen errehabilitazioan, baina luzarora begira ongi aterata da eta ebakuntzaren hurrengo hilabeteetan hanka-sartzea zela pentsatu banuen ere, orain ikusi dut bete-betean asmatu nuela.

Hala ere, berriro pilotan hasi eta berriro minez hasi ziren, gogorra izango zen...

Bai, bigarren aldia gogorrena izan zen. Hondoan jo izanaren sentsazioa nuen, beherago ezin nuela joan eta eskua sendatzen bazen, behetik gora egingo nuela. Halaxe izan zen eta hortik aurrera gauzak hartzeko beste esperientzia bat dut.


Hortaz, psikologikoki gogortu zintuen.

Dudarik ez dago momentu txarretatik ikasi dudala, batez ere gauzak lasaia hartzen.

Leitza

“Txakur batzuk ditut mendian daukagun borda batean eta egunero joaten naiz eurekin mendira. Norberaren herriak xarma berezia duela iruditzen zaigu beti eta etorkizunean hemen bizitzea gustatuko litzaidake, baina edozer gauzagatik kanpoan bizi beharko banu, prest nengoke. Batez ere hemengo pagadiak botako nituzke faltan. Txikitan, adibidez, Iruñera joan ginen bizitzera eta aldaketa ikaragarria sumatu nuen, hizkuntzarekin gehienbat. Ez nekien erdaraz hitz egiten eta nahiko gogorra egin zitzaidan hasieran”.





Lehen pilota, hein batean, obsesioa zen eta orain zorrotza naiz, entrenamenduak gogor eta ongi egitea gustatzen zait, baina baita lagunez, familiaz, mendiaz eta nire txakurrez disfrutaz ere. Irekiago bizitzen ikasi dut.

Jasandakoa eta gero, zer garrantzi ematen diozu egoera psikologikoak kirolean duen eraginari?

Plano psikologikoak eragin handia dauka, bai kirolean eta bai bizitzan. Gauzak zein jarre-
rarekin hartzen dituzun, momentu txarretan zer datorkizun burura, etortzen zaizkizun mamuak gainditzeko dituzun edo ez... Fisiko-
ki edo teknikoki gutxiago den pilotaria psi-
kologikoki ongi baldin badago, emaitza
hobeagoak lor ditzake. Gero eta kirol psiko-
logo gehiago dago, kirola ere medioetan gero
eta gehiago agertzen delako ikuskizun bezala
eta presioa handiagoa da.

Fisikoki ere oso gogorra da pilota. Eskatzen duen sakrifizioa kontuan hartuta, merezi al du?

Pilotak asko ematen dit, ona eta txarra, eta bizitzarako oso baliagarri diren gauzak ikas-
teko bidea ere bada. Egia da kirolean alde
fisikoa duela 30 urte baino askoz ere gehi-
ago lantzen dela eta sakrifikatua da, baina
beste jende askok hainbat gauzarako ere
sakrifikatu beharra du eta sakrifizioa ona da;

Politika

**"Kanpotik badirudi
aldaketa egon
daitekeela
Nafarroan. Orain
paktuekin-eta ari
dira, baina niri
politikak aspertu
egiten nau.
Hauteskunde
aurretik ez da
besterik egoten eta
ondoren ere neketsu
egiten zait.
Politikariak egun
batean elkar
iraintzen ari dira eta
hurrengo egunean
batera daude,
nahiko mundu
konplikatu iruditzen
zait".**

gauza batzuk egiteari uztea, gehiago desio
duzuna lortzeko.

Baten batek pentsa dezake berriz eskuko mina izan dezakezula.

Kirolari baten bizitzan lesioen arriskua hor dago beti, baina eskuineko eskuarekin izan dudana lesio berdina errepikatzea oso zaila izango da.

Esamesak isiltzeko behintzat, frontoia baino hoberik ez.

Hala da, eta gainera hori da bidea: pilotari batek kantxan hitz egin behar du.

Enpresak konfiantza izan al du zuga?

Enpresa enpresa da eta gauzak garbi esan behar dira: lesionatua egon naizenean nahi adina etekin ez dute atera nirekin; pilotari bat etxean lesionatuta egotea ez da inorentzako ona. Orain urtebete kontratua sinatua dut eta enpresaren konfiantza, gutxi gehiago, beti hor izan dela uste dut.

Aspek lau urteko kontratua eskaini zizun, diru gutxiagotatik, eta zuk urtebeterako baino ez zenuen sinatu; orain negoziaketetara beste maila batekin zoaz. Zure buruan konfiantza izango zenuen halako gauza bat egiteko.

Bai, nire buruarengan eta eskuarengan konfian-



Dive Tarpoon Urpekaritza




Kirol portua, A7 lokala • 48992 Getxo • Tel / Fax: 94 4912577
e-posta: diveatarpooon@euskalnet.net • web orri: www.diveatarpooon.com

URRUTI SPORT

PARAPENTE IKASTAROAK
ETA BI LAGUNENTZAKO HEGALDIAK

Jose Maria Soroa 20 • 20013 Donostia
Tel/Fax: 943 27 81 96
e-posta: urruti@urruti.com • www.urruti.com

tza nuen eta momentuak daude arriskatzeko: erabaki hori hartu nuen eta ongi atera zait, baina ez banintz finalera iritsi ere gustura egongo nintzen hartutako erabakiarekin. Lehengoan entzun nion Garbajosari NBAra iritsi zenean esan ziotela baloia sartu edo ez sartu ondoren datorren gauza dela, aukera ona dagoenean pentsatu gabe baloia saskira botatzela dela egin behar dena, momentua iristen denean arriskatu, zalantzan geratu gabe. Nolabait, hori da nire filosofia.

Maila profesionala Aspe eta Asegarcek kontrolatzen dute gehienbat. Zer iruditzen zaizu kirol eredu hori?

Igual hobekiago izango litzateke irekia goa izatea, horren pribatizatua beharrean, enpresa eta pilotari gehiagok parte hartzeko. Egia esan ez dakit zein estatutu dituzten hor eta ezin naiz epaitzen hasi, beraien arauak dituztelako, baina kanpotik iruditzen zait enpresa gehiagori parte hartzeko aukera eman beharko litzatekeela, pilota profesionala zabalagoa izateko.

Eta Frontisena bezalako zirkuitu profesional alternatiboak antolatzea zer iruditzen zaizu?

Oso ongi, gauza oso interesgarriak egin dituzte. Pilota pixka bat aldatu nahi izan dute eta etorkizunerako ere Frontis alternatiba izango da. Nahiago nuke halako enpresa gehiago sortuko balira; ekonomikoki bideragarriak izatea da gakoa.

Nafarroan, bi Lau t'erdiko jokatu dira: Aspe eta Asegarcek antolatutakoa batetik eta Frontis eta Federazioarena bestetik...

Bai, horrelako gauzak ez dira oso ongi gertatzen kanpora begira. Kanpotik datorrenak galdetuko du: nor da Lau t'erdiko txapelduna? Eta bi izen eman beharko dizkiozu. Nahasmena da, irteera zein izan daitekeen oso ongi ez badakit ere. Enpresa profesionalak zenbat eta gehiago izan, orduan eta hobekiago, eta estamentu independente batzuk izatea beharrezkoa da araudiak ezartzeko. Enpresa-interesak beharrezkoak dira baita ere, baina enpresek ez dezatela botere guztia izan. Estamentu independenteek erabaki garrantzitsuak hartzeko boterea izan dezatela, pilotarentzako garbigoa izango litzatekeelako (atzerapenen kontua bezalako zalantzekin, esaterako).

Hala ere, Frontiseko zuzendari Inaxio Errandoneak berak esan zigun sasi-enpresa asko dagoela bere burua profesional bezala aurkeztzen dutenak.

Hala da, afizionatu mailan jokatzen dute, pro-



fesional bezala aurkeztuz. Jokatzeko eskubidea dute, noski, baina profesional hitza ez da onena. Etorkizunerako positiboa izango litzateke zehaztea zer den profesional eta zer afizionatu. Afizionatuentzako ona izango litzateke, enpresa erdi-profesional horiek bidea moztzen dietelako. Azkenean jendeak ez daki nor den profesionala eta nor afizionatua. Dena den, badakit, leku askotan bezala, legeak jarrita ere zirrikituak geratuko liratekeela.

Eta etorkizunean enpresa gehiago onartuko dituen liga egin ahalko dela uste al duzu ala Aspe eta Asegarcearen eredia mantenduko da?

Gauzak ez dira betiko eta pilota profesionalerako ona iruditzen zait Aspe hor egotea, Asegarce hor egotea eta beste enpresa gehiago ere egotea. Ez dakidana da ekonomikoki bideragarria izango litzatekeen.

Zuk 19 urterekin debutatu zenuen. Salto handia izango da afizionatuetatik profesionaletara ematen dena. Ondo neurtua al dago?

Askotan goizegi debutatzen dute pilotari batzuek, baina aipaturiko enpresa erdi-profesionalek pilotariak eurekin eraman eta afizionatutan maila baxua geratzen bada, profesionaletara salto egitea izan daiteke pilotariak hobetzeko duen bidea. Hala ere, agian goizegi pasatzen dituzte profesional mailara, batez ere goiz baina *figura* bezala pasatzen dituztelako eta mutil horrek 19-20 urterekin gainbehera duenean umea da oraindik.

Gonzalezek Olaizola harroa dela esan berri du, polemika dezente piztuz. Lehiakortasun handia al dago jokalarien artean?

Bai, dudarik gabe. Pilotak duena da partidua jokatu aurretik aldageletan-eta elkarrekin egoten garela eta batzuen lagun handiagoak gara, besteenak gutxiago, baina lehiakortasuna tartean dagoenean lagun minak izatea zaila da.

Zure profilarekin bukatuko dugu: pilotaria zara, trikitia jotzen eta dantzari ere aritua zara eta musa gustatzen zaizu. Euskaldun peto-petoa izateko ahaleginak egiten?

Kar, kar, kar. Trikitia aspaldi jotzen nuen, txikitari, modan jarri zelako, baina urte pare batez aritu nintzen, behatz lodi hauekin jotzea zaila baitzen. Dantza bai, asko gustatzen zitzaidan eta dantza taldea dago herrian. Muserako berriz, afizio handia daukat, baina nahiko txarra naiz, nik uste horretan bai, gipuzkoarrak nagusi zaretela. ■

Dopina

"Txapelketa honetan kontrol bat pasa dut eta finalerako beste bat pasako dut. Lau t'erdikoan bizpahiru egin zizkidaten. Ez dut uste pilota munduan dopinik dagoenik. Nik ez dut inoiz positiborik eman eta kirol honetan kasuen %99an ez da positiborik egon".